

Donostia, 2023ko maiatzaren 2a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

PREMIAZKO MOZIO ARRUNTA, ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAK GAUR EGUN DUEN SEGURTASUNARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta PREMIAZKO KONTROL MOZIO hau aurkeztu behar du, Zubietako erraustegiak gaur egun duen segurtasuna dela eta, OSOKO BILKURAN eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Zubietako erraustegiari buruzko albiste kezkarri bat baino gehiago iritsi zaizkigu azkeneko egunotan:

1.- Donostiako 5. Epaitegiak ikertuko ditu Erraustegitik Arkaitzerrekara izandako isurketak.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebatzi du Donostiako Instrukzioko 5. Epaitegiari dagokiola erraustegiaren isurketak prozedura bakarrean ikertzea.

Donostiako bi instrukzio-epaitegiak (4. eta 5. epaitegiak) lurralde-eskumen negatiboko arazoa zuten **Arkaitzerrekara 2022ko uztailaren 13az geroztik izaten ari den isurketa kutsatzailea** dela-eta, «hau da, bi epaitegiak ukatu egiten zuten Ingurumeneko Fiskaltzak jarritako salaketa bideratzeko eskumenik zutenik».

Auzitegiak ondorioztatu duenez, ordea, hau ez guke erraustegiaren beraren funtzionamendutik aparte den jarduera izango, jarduera horretatik kanpo diren enpresa batzuek eginga, baizik eta 2020. urtean gertatutako isurien antzekoak izango lirateke denak ere.

Hiru prozedura judizial daude:

- **Lehenengoa** 2020an Arkaitzerreka errekastora amoniakoa botatzearekin hasi zen.
- **Bigarrena** iragazketena da. 2022ko uztailaren 13an, Arkaitzerrekako ura okre kolorekoa izaten hasi zen. Fenolak detektatu zituzten lurrean. Plastikoak erretzearen ondorioz izten dira fenolak, eta airetik iristen dira. Hau da, **lurzoruaren, airearen eta uraren kutsadura** dugu.

2019ko azaroan, labea piztekoan, matxura izan eta gas-arazketak ez zuen egiten. **Hortik toxinak.**

- **Hirugarrena** hondakinen labearen elikadurarekin dago lotuta. Izan ere, 2013ko legearen arabera, **automatiko** itxi behar da labea hiru gauza gertatuz gero (tenperaturarekin zerikusia duten bi gauza eta isuriekin lotutako gauza bat). Hirugarrenarekin, isuriekin, ez du automatiko egiten, eta eskuz itxi behar da. Eta ingurumen baimenik ez dago izaterik automatiko ixten ez bada.

Ez zuten ezer ere esan. Horregatik jarri zuten ingurumen-prebarikazioa egin zelako salaketa eta dagokion egozpena.

2.- Zubietako erraustegiak ez du balorizazio energetikoko instalazio izateko kalifikaziorik lortu.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak ezin izan du kalkulua egiaztatu, eta ez dio ez **eraginkortasun energetikoaren baliorik** eta ez hondakinen balorizazio energetikorako eragiketa gisa duen sailkapenik (R1) ere jakinarazi instalazioari.

Ondorioz, instalazioak **ez dauka hondakinen balorizazio energetikoko eragiketa izateko kalifikaziorik (R1).**

Zubietako erraustegiaren kudeatzaileek ez dute kanpoko eragile batek egiaztatutako txostena bidaltzeko betebeharririk bete. Errauste lerro bakoitzeko zer energia-efizientzia den eta hori ateratzeko egindako kalkulua adierazi behar du txoten horrek, eta Europako Batzordeak argitaratutako gidan ezarritako argibideei jarri egin behar da. Era berean, datu horiek egiaztatzeko izan behar den informazio osagarriarik ere ez dute bidali.

Horrek ingurumen-baimenaren indarraldiari eragiten dio. Izan ere, Ingurumen Baimen Bateratuak (IBI) baimen bat baino gehiago jasotzen ditu (isurketenak, hondakinen tratamenduarenak edota instalazioa ustiatzeko ingurumen-baimena bera) baimen bakar batean; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen helburua eta xedapenak betetzen dituela bermatzeko diren baldintza batzuk betez gero, betiere.

3.- Erraustegiak elektrizitatea sortzeko duen sisteman izandako matxura batek egiten ez duela utzi du hura.

Agi denez, turbogeneradore bat hondatu egin da eta **argindarra sortzeko sistemak ez du egiten, erraustegia gelditu dago eta zaborra pilatzen ari da instalazioetan, tratatu gabe.**

Ez dakigu noiz arte jarraituko duen erreustegiak geldirik, eta ezta matxura handia edo txikia den ere.

Ez dakigu, matxura konpondu eta instalazioa berriz martxan jarri arte, zer egingo den egunero iristen diren hondakinekin.

Albiste kezkarri horiei guztiei buruzko informaziorik ez denez, hauxe da gure

PREMIAZKO MOZIO ARRUNTA

1.- Donostiako Udalaren osoko bilkurak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen zuzendaritzari eskatzen dio lehenbailehen emateko instalazio horretan hondakinei ematen zaien tratamenduaren segurtasunaz eta bideragarritasunaz eman behar diren azalpen guztiak.

2.- Donostiako Udalaren osoko bilkurak Gipuzkoako Ingurumen Gunean zuzendaritzari eskatzen dio, herritarrei arriskuren bat sortzeko moduko matxurarik gertatuz gero, berehala jakinarazteko Udal honi duen informazio guztia.

Aitzole Araneta Zinkunegi,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.